Normalean, gelan irakurgai luzeren edo zailen bat irakurri baino lehen etxean irakurtzeko esaten diot, hitzekin eta esaldiekin trebatzen joan daiten. Hori bai, egun horretan etxerako lan bakarra izaten du, nahiko lan zaila baita berarentzat. Eta irakurgai edo testua nik prestatutakoa bada, hau da, liburukoa ez bada, tipografia argia eta garbia erabiltzen dut honek irakurketa errazten diolako.



## LHM3E-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK

- ~ Adina: 56 urte
- ~ Sexua: Emakumea
- ~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Ezer ere ez.
- ~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua): 33 urte
- ~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? Bai, diagnostikako 3 kasu izan ditut. Lanean hasi nintzenean ez ziren dislexia kasuak ezagutzen, ez genekien izenik ipintzen, nahiz eta egon.
- ~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Publikoa

## GALDERAK

- 1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.
  - a. Heziketa multisensoriala.
  - b. Heziketa psikomotorra.
  - d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
  - e. Garapen psikolinguistikoa.
  - f. **Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa.** Betiko metodoak dira. Sintetikoa silaba edo fonemak hartu eta esaldi osoak lantzekoa da. Analitikoa, aurrekoan egiten denaren alderantzizkoa da eta mistoa, bien arteko nahasketa bat da.
  - g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten.

- 2) Aurrez aipatutako metodoren bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Bai, irakurmenean entrenatzeko metodo sintetikoa erabili izan dut. Normalean dislexia duten ikasleen zaletasunekin lotutako testuez baliatzen naiz eta bertako esaldi deigarrienak kolorez markatzeko eskatzen diet. Azken finean, esaldia hitz ezberdinez osatuta dagoela konturatzen dira eta gero, hitz horiek silabatan zein grafemetan deskonposatzen hasten gara. Haurra txikitxo bada normalean koloretako kartulinetan idatzitako hizkiak erabiltzen ditut, erakargarriagoa delako. Baina, ikaslea apur bat nagusiagoa bada koadernoan bertan egiten dut, idazketa lantzeko.

Metodoa eraginkorra dela uste dut, baina beharbada nik neuk metodo gehiagoren inguruan jakiteko beharra dudala somatzen dut. Gaurko elkarrizketari esker dislexia tratatzeko metodo ugari daudela konturatu naiz eta haurnartzeko tartetxo bat eskaini dit. Batzuetan ikasleei nahiko errepikakorra egiten zaie nik proposatutako ariketa eta nik ere asko daukat ikasteko.

- 3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Askotan gela guztiarentzako ozenki irakurtzen eta ideia orokorrak guztion artean ateratzen saiatzen naiz eta ez bakarrik dislexiadun ikasleei mesede egiteko, ziur nago gainontzekoei ere ondo etorriko zaiela.

- 4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkeror?

Nire ustez, onena banakako atenzioa eskaintzea da eta laguntzeko prest gaudela erakustea. Horregatik, familiekin kontaktua izaten ahalegintzen naiz, aurrerapausoak elkarrekin emateko. Guraso batzuk asko inplikutzen dira eta adibidez, eskolan irakurri behar ditugun ipuinak zeintzuk diren galdetzen didate, etxean aurretik irakurtzeko eta umea galduta ez sentitzeko.

Guk askotan taldeka lan egiten dugunez, bakoitzak talde rol bat hartzen du eta normalean bozeramailearen papera hartzen dute eta oso ondo betetzen dute.

## LHM4E-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK

- ~ Adina: 35 urte
- ~ Sexua: Emakumea
- ~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Ez
- ~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua): 12 urte
- ~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? 7 gutxi-gorabehera
- ~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Publikoa

### GALDERAK

---

- 1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.
  - a **Heziketa multisensoriala:** Metodo honetan ikusmena, entzumena eta ukimena praktikan jartzen dira. Adibidez, irakasleak hitz bat edo soinu bat esan dezake eta gero, umeak grafema marraztu.
  - b. Heziketa psikomotorra.
  - d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
  - e. Garapen psikolinguistikoa.
  - f. Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa.
  - g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten.

- 2) Aurrez aipatutako metodoen bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Bai, metodo multisensoriala erabili izan dut jolas estiloko ariketak egitea ahalbidetzen duelako. Gainera, metodo hau ez da bakarrik onuragarria dislexia duen horrentzat, gela guztiarentzat baino. Ondarruko hondartzako hondarrari etekin handia ateratzen diot; erretiluetara hondarra bota, hitz bat pentsatu eta hatzekin hizkiz hizki idazten joaten dira. Gero, letra bakoitza ozenki irakurtzen dute eta amaieran, hitz osoa. Beste batzuetan gauza bera egin izan dut, baina koloretako hizki magnetikoak erabilia.

Egia esan, metodo hau oso desberdina eta motibatzailea dela uste dut eta gainera, oso metodo inklusiboa da, lehen esan dudan moduan beste guztiek ere parte hartzen dutelako eta dislexia duen hori ez da besteengandik desberdintzen.

- 3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Normalean irakurketa estrategiak gela osoari zuzendutakoak izaten dira, ikasle guztientzat baliagarriak izan daitezkeelako. Adibidez, batzuetan testuak nik irakurtzen ditut eta guztion artean hitzak azpimarratzen joaten gara. Kolore urdina hitz gakoak azpimarratzeko erabiltzen dugu eta gorria hitz ezezagunak azpimarratzeko. Testuko irudiak ere oso baliagarriak dira eta irudi deigarriak agertzen ez bada, batzuetan Interneten testuarekin lotutako argazkiak bilatu eta arbel digitalean jartzen ditut guztion artean komentatzeko.

- 4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkeror?

Askotan ahozkoari garrantzia gehiago ematen diot eta ortografia akats batzuk ez dizkiet zuzentzen, beti ere momentua eta egin behar dutena zer den kontutan hartuta. Adibidez, irakurgai bati buruzko idatzizko laburpena egin behar badute, niretzat garrantzitsuagoa da testua ulertu duen ala ez jakitea eta ez akats barik idaztea.

Arbelean zerbait idazterako orduan ere, nire kaligrafia zaintzen saiatzen naiz eurek hobeto ulertzeko.

## LHM5G-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK

- ~ Adina: 47
- ~ Sexua: Gizona
- ~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Ez
- ~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua): 26 urte.
- ~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? Bai, diagnostikatutako 2 dislexia kasu izan ditut.
- ~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Itunpekoa.

## GALDERAK

---

- 1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.
  - a. Heziketa multisensoriala.
  - b. **Heziketa psikomotorra:** umeak dituen gabeziak edo ahuleziak ikusita bere gorputz eskema eta bere burua antolatzeke era bat da. Adibidez, mugimenduaren bidez landu daiteke.
  - d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
  - e. Garapen psikolinguistikoa.
  - f. Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa.
  - g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten.
- 2) Aurrez aipatutako metodoen bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Heziketa psikomotorra zer den ezagutzen dudan arren, gelan ez dut sekula horrelako ariketarik egin. Metodo honek ikasleak mugimenduan jartzea bilatzen du eta gela ez da bat ere toki aproposa, leku gutxi dagoelako. Baina Gorputz Hezkuntzako irakaslea nintzenean, alderdi psikomotorra asko lantzen genuen. Azken finean espazio librean egoteak asko laguntzen du eta gorputz atalak ezagutzeko dinamikak, lateralitatea lantzekoak...sarritan egiten genituen.

3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Irakurri beharrekoa hobeto ulertzeko guztion artean testuko hitz berriak, ezezagunak...azpimarratzen ditugu, kolore desberdinak erabiliz. Ulermenean gehiago sakontzeko, paragrafo bakoitzari dagokion galdera batzuk egiten dizkiet eta ozenki erantzuten joaten dira.

Batzuetan, irakurgaiak audioaren laguntzaz irakurtzen ditugu. Adibidez, Santillana argitaletxeak entzungaiak egiteko CDa ekartzen du eta umeak gustura aritzen dira. Zoritzarrez, gaztelaniaz euskaraz baino entzungai gehiago daude eta hor lan handia dago egiteko. Beste batzuetan, testuko paragrafoak hiru aldiz irakurtzen ditugu jarioetasuna lortu dezaten, baina horretarako etxean ariketa hau praktikatu behar izaten dute. Nahiko errepikakorra eta aspergarria badirudi ere, umeak aurrera-pausoak ematen dituztela ohartu naiz.

4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkerro?

Gehienetan ipuinak eta testuak gelan irakurri aurretik, etxean prestatzeko esaten diet. Badakit ume hauentzako lan handia dela eta nik ere etxeko lanak ditudala azaltzen diet. Izan ere, irakurgai horiekin lotutako aurkezpenak prestatzen ahalegintzen naiz, dislexiadun haurrek irudien laguntzarekin asko ikasten baitute eta gainontzekoek ere bai, noski.

Ariketak egiteko denbora gehiago uzten diet eta bateren bat amaitu gabe geratzen bazaie ez diet amaitzeko eskatzen, badakit esfortzu handia egin behar dutela. Beste batzuetan, batez ere ulermeneko jardueretan, lau egin beharrean bi egiteko esaten diet “menos es más”. Honekin lotuta, ortografia akatsei ez diet garrantzia handiegirik ematen, nire ustez ulertu duten ala ez garrantzitsuagoa baita, hau da, ulermena lantzea da giltza.

Frogetan letra tamaina handitzen dut enuntziatuen irakurketa eta ulermena errazteko eta froga osoa batera egin beharrean zatika pasatzen diet, protokoloak hala esaten duelako. Modu honetan, azterketa ikusten dutenean ez dira beldurtzen, letra gutxiago agertzen dira-eta.

Aurreko guztia ezinbestekoa da, baina gurasoekin harremana mantendu behar da gelan egindakoa eta etxean egindakoa koordinatzeko; haurra irakasleak eta familia bide beretik goazela konturatu behar da.

### LHM6E-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK

- ~ Adina: 41
- ~ Sexua: Emakumea
- ~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Psikopedagogia ikasketak
- ~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua): 14
- ~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? 4
- ~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Publikoa

### GALDERAK

---

- 1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.
  - a. **Heziketa multisensoriala:** zentzumen ezberdinak erabiltzen diren metodoa.

- b. **Heziketa psikomotorra:** motrizitate ezberdinak lantzeko bidea, adibidez: fina, lodia, arkatza heltzeko modua, lateralitatea, eskuin ezkerra...
  - d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
  - e. **Garapen psikolinguistikoa:** entzumena lantzeko ariketak egiten dira, entzundakoaren, ikusitakoaren eta dagokion letraren arteko erlazioak ere bai.
  - f. **Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa:** metodo sintetikoa silabetatik esaldietara igarotzen da. Analitikoa esaldietatik silabetara eta mistoa, bien arteko konbinaketa bat da.
  - g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten
- 2) Aurrez aipatutako metodoren bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Heziketa multisensoriala Eduardo Herreraren “Encodigo” programaren bidez landu izan dut. Fonema bat eman eta hatzekin bere forma jarraitu eta gero horien soinuak entzuten dituzte. Hau ikasle guztiekin egin izan dut eta pista asko ematen ditu, adibidez ume batek irakurtzeko zein bide erabiltzen duen errazago edota umeren batek laguntza gehiago behar badu. Niri asko gustatzen zait. Gainera, hau ez da bakarrik heziketa multisensoriala. Izan ere, programa honek irakurmenerako entrenamendua ahalbidetzen du. Batzuetan silabetatik hasita hitz osoak lantzerara pasatzen da eta beste batzuetan esaldietatik silabetara.

Heziketa psikomotorra batez ere 1.zikloan egin izan dut. Denbora egutegiaren bidez landu izan dut, errutinen bidez ere bai (atzo, gaur, bihar, etzi...). Simetria ispiluaren laguntzarekin landu izan dut manipulagarriagoa izateko, letraz betetako orri bat eman eta antzeko itxura duten letrak borobiltzeko ariketak... Jolas moduan planteatzea gustatzen zait, bestela umeak aspertu egiten dira.

Garapen psikolinguistikoa bultzatzeko ariketak ere egiten ditut noizbehinka. Adibidez, denon artean ipuin bat irakurri eta amaiera emateko ariketak, pilota elkarri pasatu bitartean ipuin bat sortzea...



Ume bakoitza mundu bat da eta ez nuke esango metodo onena zein den, ez dago metodo magikorik. Umea ezagutu eta bere beharrei erantzuteko bidea bilatu behar da. Umea motibatzea lortzen badugu, nahiz eta zailtasunak eduki, ikasteko saiakera egiten du.

3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Irakurritakoa ulertzen joateko, adibidez ipuin bat irakurri eta gero “Zer gertatu zaio protagonistari?, “Zer egin du konpontzeko?” bezalako galderak egiten dizkiet eta beste batzuetan ahozko laburpenak egiten dizkiet, baina normalean klase guztiari. Dislexiadun umeekin irakurketarako abiadura lantzeko testu berezi batzuk ere erabili izan ditut eta paragrafo bakoitza 3 aldiz irakurri behar izaten dute.

4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkerro?

Normalean zailtasunak dituzten umeak nigandik hurbil egotea gustatzen zait, laguntzea errazten duelako. Gelan lantzeko testuak luzeegiak badira laburtu eta moldatu egiten ditut. Tipografia argia aukeratzen ahalegintzen naiz, letra mota batzuk oso zailak direlako. Testu horietan jasotako informazioa laburbiltzeko irudiak ere sartzen ditut, ume hauek ikusizko gauzen beharra dutelako.

Batzuetan dislexia duten batzuk irakurtzera animatzen dira eta eskua altxatzen dute. Jarrera hori ikusirik zoriondu egiten ditut askotan, autoestimua falta izaten dutelako eta pizgarri moduan ondo etortzen zaielako.

## LHM7E-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK

- ~ Adina: 32 urte
- ~ Sexua: Emakumea
- ~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Psikopedagogia
- ~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua):10 urte
- ~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? Bai, 4 kasu izan ditut.
- ~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Itunpekoa

### GALDERAK

- 1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.
  - a. **Heziketa multisensoriala:** haur bakoitzak ikasteko bide ezberdinak dituen aukera gehiago ematen dituen metodoa. Batzuek hobeto ikasten dute gauzak ikusita, beste batzuek gauzak entzunda eta besteek gauzak ukituz eta esperimendatuz.
  - b. **Heziketa psikomotorra:** gorputz eskema, motrizitatea, lateralitatea...sartzen dira.
  - d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
  - e. **Garapen psikolinguistikoa:** entzumena, ikusmena, ahozko gaitasuna...martxan jartzen dira.
  - f. **Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa.** Sintetikoa hizkuntzaren zati txikiak lantzen hasten da, silaba edo fonemak hartu eta esaldi osoak

sortzeko. Analitikoa, esaldietatik zati txiki horietara pasatzen da eta mistoan, bi bideak nahasten dira.

g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten.

- 2) Aurrez aipatutako metodoen bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Heziketa multisensorialean oinarritutako ariketa asko egiten ditut, batez ere jolas moduan planteatuta. Nire txikiei letren soinuak lantzeko fonema bakoitzak bere keinua duela erakusten diet, kinestemen bidez. Hasieran, laguntza bisuala ere jasotzen dute, hau da, keinua ikusten dute bakarrik soinua entzun ordez.

Gainera, puntzoiarekin sortutako txantilo batzuk ere baditut hizki bakoitzaren gainetik atzamarra pasatu eta zein den asmatzeko. Baina gehien gustatzen zaien jarduera hondarraren gainean hatzekin idaztea da. Nik hitz bat esan eta letraz letra idazten joaten dira. Gero, hizki bakoitza ahoskatzen hasten dira eta bukatzeko, hitz osoa ozenki irakurtzen dute. Hau da, hitz berriak eskuekin sentituz, biziz eta jolastuz ikasteko modu bat da hau.

Garapen psikolinguistikoa ere landu izan dut, adibidez errimak landuz, baina umeentzako eta nagusiontzako ere, ez da erraza errimak egiten jakitea.

Nik beti esaten dut irakasleak gogotsuak izan behar garela, gogo barik metodo onena ere ez delako eraginkorra izango. Nire ustez, garrantzitsuena ekintza desberdinak egitea da, ikasleei manipulatzeko aukera eman eta gauza ludikoak eginez.

- 3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Oso garrantzitsua da testuaren hasierako ideia bat egiteko irudiren bat ematea, edo izenburua irakurtzeko eskatu eta zer uste duten galdetzea. Batzuetan testua bera behin eta berriz irakurtzen dugu eta deigarriak egiten zaizkien hitzak azpimarratzen ditugu.

- 4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkeror?

Gelan ozenki irakurri behar dugunean eurek aurretiaz jakiten dute zer irakurriko duten edo esaldi laburrena irakurtzen dute. Eskemak, laburpenak, mapa kontzeptualak... ere askotan erabiltzen ditut azaldutakoa argitzeko.

Gurasoekin harremanetan egotearen aldekoa naiz eta inplikatzeko gogoia dutela ikusten badut, nik sortutako material batzuk ere uzten dizkiet, laguntzeko gaude-eta.

### **LHM8E-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK**

- ~ Adina: 30 urte
- ~ Sexua: Emakumea
- ~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Ezer ere ez
- ~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua): 4
- ~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? Ez, ez dut dislexia duen umerik ezagutu.
- ~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Publikoa

### **GALDERAK**

---

- 1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.
  - a. Heziketa multisensoriala.
  - b. Heziketa psikomotorra.
  - d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
  - e. Garapen psikolinguistikoa.

f. Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa.

**g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten.**

2) Aurrez aipatutako metodoren bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Ez, momentuz ez dudalako dislexia dutenekin lan egiteko aukerarik izan.

3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Ez dut dislexia kasurik izan eta ezin dizut erantzun.

4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkeror?

Gauza bera, esperientziarik ez dut izan eta.

### **LHM9G-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK**

~ Adina: 27 urte

~ Sexua: Gizona

~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Ezer ere ez

~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua): 2

~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? 0

~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Publikoa

## GALDERAK

---

1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.

- a. **Heziketa multisensoriala:** jarduera berean zentzumen bat baino gehiago aktibatzen dituen heziketa.
- b. Heziketa psikomotorra.
- d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
- e. Garapen psikolinguistikoa.
- f. Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa.
- g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten.

2) Aurrez aipatutako metodoren bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Hezkuntzan denbora gutxi daramat eta erronka polita litzatekeen arren, oraindik ez zait horrelako kasu bateri aurre egiterik tokatu. Baina badakit eskoletako PTeek ariketa multisensorial asko egiten dituztela eta nire ustez, irakasteko modu berri eta erakargarri bat izan daiteke hau.

3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Esan dizudan moduan ez dut dislexia duen ikaslerik izan eta ez dakit zer esan.

4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkeror?

Momentu honetan esan ahal dizudan gauza bakarra, gai honetan esperientziarik eta formakuntzarik ez dudala da. Beraz, ikastaroren bat edo egin beharko dut etorkizunean prestatuago egoteko.

## LHM10E-ELKARRIZKETATUAREN DATU OROKORRAK

- ~ Adina: 31 urte
- ~ Sexua: Emakumea
- ~ Dislexiarekin lotutako ikasketa eta formakuntza bereziak: Psikologia ikasketak
- ~ Hezkuntzan izandako esperientzia (urte kopurua): 6 urte
- ~ Dislexiadun ikasleekin lan egin al duzu inoiz? Zenbat dislexia kasu izan dituzu gutxi gorabehera? Bai, 3 kasu.
- ~ Momentu honetan lanean diharduzun ikastetxearen izaera (publikoa, itunpekoa edo pribatua): Itunpekoa

### GALDERAK

---

- 1) Zerrenda honetan dislexia tratatzeko hainbat metodo jasotzen dira. Seinalatu ezaguna/k egiten zaizuna/zaizkizunak. Seinalatutakoaren/seinalatutakoen artean laburki azaldu (pare bat esalditan gehienez) metodoaren ideia nagusia edo zertan datzan.
  - a. **Heziketa multisensoriala:** hainbat zentzumen erabiltzea eskatzen duenez ikasketa estilo ezberdinetara egokitzen da eta ikasketa hobetzen du.
  - b. **Heziketa psikomotorra:** gorputzaren garapena sustatzen du eta bertan lateralitatea, motrizitatea...bezalako alderdiak lantzen dira. Dislexia kasuetan oso ohikoa da lateralitate gurutzatua duten umeekin topo egitea.
  - d. Alderdi pertzepzio-motorraren entrenamendua.
  - e. **Garapen psikolinguistikoa:** gaitasun ugari sartzen dira metodo honen barruan: ahozko adierazpena, ikusmena, entzumena, gramatikaren lanketa...
  - f. **Irakurmenerako entrenamendua: metodo sintetikoa, metodo analitikoa edo globala eta eklektikoa edo mistoa:** antzinako metodoak dira, umeak irakurtzen hasten direna.
  - g. Aipatutakoen artean ez zait horietako bat ere ezaguna egiten.

- 2) Aurrez aipatutako metodoaren bat erabili al duzu inoiz? Azaldu zer motatako jarduerak egin ohi dituzun eta eman ezazu metodoaren eraginkortasunaren inguruko iritzia.

Ni beti izan naiz garapen psikolinguistikoaren aldekoa. Gogoan daukat asmakizunak gustuko zituen ikasle bat, egunero asmakizunak gora eta behera ibiltzen zen. Orduan, askotan asmakizunak asmatzen nituen berak amaiera bat emateko. Dislexiadun ikasleekin komikiak ere oso eraginkorrak direla uste dut. Adibidez, binetak desordenatuta eman eta ordenatzeko esan ahal diegu. Lehen “El tren de palabras de Monfort” deitzen zen. Lehenengo pentsamendua egituratu behar da; binetak ordenatu ondoren idatzi egin behar da.

Baina heziketa multisensoriala ere erabiltzen dut noizbehinka. Adibidez, kinestemak kasu hauetarako lagungarriak iruditzen zaizkit. Letra bakoitzari soinua eta keinua bat ezartzen diogu. Hala ere, hau txikitxoagoekin egin izan dut.

Nire ustez, metodoaren eraginkortasuna umearen izaeraren, gaitasunen zaletasunen... menpe dago eta kasu bakoitzaren arabera, metodo bat edo beste erabiliko dugu.

- 3) Zeintzuk dira dislexiadun ikasleekin baliatzen dituzun irakurketa estrategiak?

Nire ustez, oso garrantzitsua da testuak euren gustukoak eta erakargarriak izatea, hau da, con punch. Esperientziak erakutsi dit testu zientifikoetan animalia arraroak edo beraiantzat hain ezagunak ez direnak erabiltzea oso ideia ona dela; honek irakurtzeko interesa pizten die. Testuaren inguruan zer ulertu duten ere galdetzen diet eta ulertzen ez dituzten hitzak kolorez azpimarratzen joaten gara haria ez galtzeko.

Gainera, egunerokotasunean ikusi daitezkeen testu motak erabiltzea gustatzen zait: kartelak, iragarkiak... Irakurketa ez delako liburu batera mugatzen.

- 4) Zer nolako neurriak hartu ohi dituzu gelan dislexia duen ikasleren bat izan ezkeror?

Guk ikastolan talde kooperatiboetan lan egiten dugunez, taldeen eraketa zaintzea ezinbestekoa dela pentsatzen dut, inguruan eredu onak izan ditzan. Talde rola banatzeko orduan (denbora neurtzailea, moderatzailea, idazkaria,



bozeramailea...) dislexia duen haurra ez duzu idazkari moduan ipiniko, baina bozeramaile lanetan oso ondo ibili daiteke, ahozko adierazpenean ez baitute arazorik izaten.

Azterketetan guztia idatziz egin beharrea, ariketa batzuk ahoz egiteko aukera ematen diet. Izan ere, gai bat ondo kontrolatzen badute ere hori paperean islatzeko denbora gehiago behar izaten dute eta akats gehiago egiten dituzte. Dislexiadun ikasleak horren kontziente dira eta askotan gogogabetu egiten dira. Azterketetan eta bestelako fitxetan Boerrek asmatutako tipografia erabiltzen dut. Mutil honek ere dislexia dauka eta letra hau oso argia eta irakurterraza da beraientzat.

Tableta edo ordenagailua erabiltzeko aukera ere ematen diet, Interneten baliabide polit asko daudelako. Adibidez, Youtuben gai ugariren inguruko bideoak aurkitu ditzakegu eta horietako askok marrazki eta gezien bitartez mapa kontzeptualak sortzen dituzte. Dislexiadun umeak oso "bisualak" dira eta horrelako gauzak oso egokiak dira beraientzat.